

Guggenheim, Gernika eta gukeriak

EZ nuen uste zurrumurru batek hainbeste hauts harrotuko zuenik; alegia, 'Gernika' Bilboko Guggenheim museora ekartzeko bideak egiten ari direla entzute hutsak bakarrik sortu dituen esamesak ez dira txantxetakoak izan eta, nik uste, zer pentsaturik ere ematen dutela hain barrutik ateratzen zaizkigun zipriztin horiek. 'Gernika Gernikara' edo 'Gernika Euskal Herrira' leloa gurea zela uste nuen nik, aspalditxo honetan atzendurik bageneukan ere, baina idatzitakoak irakurri ondoren zalantza ugari sortu zait eta ez nago ziur helburu hori denona ote dugun, edota bakoitzak bere nahierara ulertzen ez ote duen.

ZILEGI da, nola ez, Guggenheimen aldeko edo ez izatea, etorkizuneko proiektu mardula dela edo bere eragina eztabaidagarria dela pentsatzea, baita ere bere ordezkariak edo bestelako zerbaitek burutu zitekeela iruditzea. Hori dena normala da gizarte ireki eta heldu batean.

Era berean normala litzateke, baita ere, guretako bakoitzak 'Gernika' berak gogokoena duen lekuan (Gernikan bertan, Bilboko Artederretan eta



JOSE MARI AGIRRE

Jaurilaritzako Kultura Sailburuordea

abar) ikusi nahi izatea. Norberaren gustuak eta kutiziak beti dira errespeta garri, gutxienez besterenak errespetatzen diren neurrian.

BAINA 'Gernika' Bilboko Guggenheimen erakutsia izan daitekeenaren zurrumurruak azaleratu dituen irizpide eta kritikak nahiko harrigarriak izan dira. Batzuek nahiago dute Madrilen ikusi Bilboko Guggenheimen baino, beste batzuek ezin omen lukete jasango obra hori museo horre-

tan ikusterik.

Eta azkenean batek ez daki zer pentsatu eta gutxiago kaleko jende xumeak. Gure arteko mamuak eta hika-mikak esnatzen direnean burua galtzen dugula dirudi. 'Gernika' Euskadin ikusi nahi badugu, denbora aldi batez bederen, eta hori bada gure helburua, gure leloa, badirudi prest egon beharko genukeela, besterik ezean, Guggenheimen leku emateko. Baina horretarako gure 'gukeriak' utzi beharko ditugu. Gure helburuak gure 'gukerien' gainera jarri beharko genituzke.

NIK ez dakit 'Gernika' Bilboko Guggenheimen ikusteko aukerarik izanen dugun, baina hori gerta dadinean gaur baino jarrera baikorragoak eta bateratuagoak izango ahal ditugu. Aitortu ohi dugun lez, gure xede nagusia 'Gernika' Euskadira ekartzea bada utz ditzagun alde batera gure herra eta liskarrak. Izan gaitezen kritiko honekin eta harekin, izan gaitezen zorrotzak hau eta hura aztertzerakoan, baina baita ere izan gaitezen zentzudun eta arrazoizko jomuga garantzizkoak lortzerakoan. Izan ere askotan 'gukeriak' itsutzen gaitu.